



**LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL**

**LIBURUTEGI NAGUSIA
2016KO MEMORIA**

2016

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1

Arloko arduraduna: 1

Liburutegiko goi mailako teknikariak: 4

Liburutegiko erdi mailako teknikariak: 2 (otsailean aldaketa bat egon zen, ordezkapen batengatik)

Liburutegiko administrariak: 2

Mandatari mendekoa: 1

02/ Lokala, instalazioak eta ekipamendua

330 m²-ko irakurketa gela, honako hauek dituena: 18 irakurketa-leku, Interneterako sarbidea duten 4 ordenagailu, inprimagailu bat, fotokopiagailu-digitalizagailu bat, mikroformen irakurgailu-erreproduzigailu bat (papera eta digitala). Urria geroztik obretan, heren bat gutxituko baita bere neurria.

144 m²-ko lan-gela.

Bi biltegi Lakua II-ko 2. sotoan, armairu trinkoekin: A biltegia: 283 m²; C biltegia: 322 m²

25 m²-ko gela bat Lakua II-ko 1. sotoan, telebista-monitore batekin eta bideo-erreproduzigailuarekin.

Liburutegi osoaren apalen metro linealak, guztira, 6880 dira.

Liburutegiaren kudeaketa osoa **AbsysNet** programarekin egiten da. Programa hori erabiltzen dute Bibliotekak Sarearen barruan dauden Eusko Jaurlaritzako sailtako liburutegi guztiek; hain zuzen ere, sare horren buru da Liburutegi Nagusia.

03/ Zerbitzuak eta jarduerak

Liburutegiaren zeregin nagusia Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek informazioaren aldetik dauzkaten beharrianak betetzea da; horretarako, monografiak eta erreferentzia lanak 74175 ale eta argitalpen seriatuen 4008 izenburu dauzka, datu-baseen eta aldizkari elektronikoen harpidetzez gain.

03.1. Eskuraketak

Funtsak eskuratzeko Herri Administrazio eta Justizia Sailaren, Ogasun eta Finantza Sailaren eta Lehendakaritza Sailaren aurrekontu-funtsak erabiltzen dira. Era berean, aipatu diren sailtako administrazio bulegoetan erabiliko diren liburuen eskuraketak kudeatzen ditu. Katalogoko izenburuen kopurua trukeen bidez edo beste erakunde batzuen eta partikularren dohaintzen bidez ere handitzen da

Sartutako monografiak, guztira:	976
Eskariak	984
Jasotakoak	976
Ezeztatuak	9
Fakturatuak	526
Kosturik gabe	443

Hemeroteka: Aurreko urteetako paperezko harpidetzei eutsi egin zaie (66) eta beste 5 titulu berri izango ditugu, 2017tik aurrera jasoko ditugunak.

Lineako datu-baseen (5) eta aldizkari elektronikoen (111) harpidetzekin ere jarraitzen dugu.

03.2. Katalogazioa eta prozesu teknikoa

Monografiak 3992 titulu prozesatu dira.
Hemerotekan 6707 ale sartu ziren.
Monografiak 1206 laburpen digitalizatu dira.

03.3. Azaleztatzea

2016an argitalpen batzuk azaleztatzeke aurrekontua onetsi zen; hona hemen argitalpen horiek: El Mundo (gure liburutegiak kontserbatu behar ditu, Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoaren akordioa dela bidez), aldizkariak beste 7 izenburu eta erreferentziako 5 liburu. Guztira 145 liburu izan ziren

03.4. Kopien eskaintzak

Liburutegiak monografiak kopien bi eskaintza egin zituen. 1. eskaintzan 340 izenburu eskaini ziren, eta 92 bidali ziren. 2. eskaintzan 404 izenburu eskaini ziren, eta horietatik 145 bidali ziren.


Argitalpen seriatuko tituluak kopien eskaintza egin zen (70).

03.5. Mailegua

- Monografiak. Liburutegiak 3784 irakurle dauzka alta emanda. Sare osoaren erabiltzaileak dira. Urtean 261 alta egon dira, eta horietatik 48 Liburutegi Nagusikoak izan dira.
Maileguak: 1180
Itzulketak: 1198
- Liburutegien arteko mailegua. Liburutegi arteko 18 mailegu kudeatu dira, bai Jaurlaritzako langileek eskatutakoak, bai Jaurlaritzatik kanpoko liburutegiek eskatutakoak.

03.6. Erreprografia zerbitzua irakurketa-gelan

Guztira: 4847 orrialde.



The screenshot shows a software interface with a table of data. The table has several columns, including what appears to be a title column, an author column, and a date column. The data is organized into rows, and there are some blue highlights on certain rows. The interface also includes a search bar and some navigation buttons.



This screenshot is identical to the one in the previous block, showing the same software interface with a table of data and search functionality.



This screenshot is identical to the one in the previous block, showing the same software interface with a table of data and search functionality.

03.7. Dokumentazio zerbitzua

- Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiak kontratatutako **DIALNET zerbitzua** 2006ko otsailaren 26an hasi zen eskariak jasotzen. Orduz geroztik, 11445 eskari egon dira.

2016an, aldizkarietako artikuluen edo monografiatako kapituluaren 1531 eskari jaso dira, hilean batz bestea 127,58 eskari. Erantzuteko batz besteko denbora, hau da, erabiltzaileak eskaria egiten duenetik dokumentua bidaltzen den arte igarotako denbora, 2,5 egun da. Eskatzaileak, guztira, 146 izan dira. 2016an, 38 erabiltzailerik eman zaie alta Dialneten.

Dokumentuak aurkitzeko, eskariak egin diren aldien % 33,25en (509 eskari) Jaurlaritzatik kanpoko liburutegietara jo behar izan da, batik bat unibertsitateetako liburutegietara. Interneten % 9,6 aurkitu da (147 eskari). Gainerako eskariak (875, % 57,15) 875 Eusko Jaurlaritzaren liburutegietan ebatzi dira.

Dokumentazio eskariak

2016an, 41 informazio eta/edo dokumentazio eskari ebatzi dira.

Liburutegi Nagusiaren Karpeta Publikoetan albisteak argitaratzea

- Ikastaroak eta biltzarrak. Ikastaroei, jardunaldiei eta lan-eskaintzei buruzko informazioa duten 91 mezu argitaratu dira, Arxiforum eta Iwetel banaketa-zerrendetatik hautatuak. Mota horretako mezuak egunero igortzen dira.
- Prentsa-albisteak. 2016an 38 prentsa-txosten egin dira, 14 egunkariaren edizio digitaletako kultura ataletatik aukeratutako 271 albistekin, guztira.

Astean bi aldiz (astelehen eta ostiraletan), albisteak karpeta publikoetako iragarkien taulan argitaratzen dira; astero, asteko albiste guztiak euskadi.eus orrian argitaratzen dira, Argitalpen Zerbitzu Zentralaren eta Liburutegi Nagusiaren orrietan. Gainera, txiokatu egiten dira.

03.8. Sare sozialetan parte-hartzea: Twitter

Liburutegi nagusia Twitterren dago 2011z geroztik. 2016an 1518 txio argitaratu zituen. Jarraitzaileen kopuru osoa: 614.

03.9. Nobedadeak eta bibliografia erakusketak

Hilabete hasieran, irakurketa-gelan, sartu diren nobedadeak kontsultatzeko apalategia eguneratzen da, eta buletin bat argitaratzen da.

Dauden funtsen berri emateko, erakusketa bibliografikoak antolatzen dira aldian-aldean; 2016an 4 egin ziren:

- 2015eko urriaren 17tik 2016ko urtarrilaren 15era: *Alderdi politikoak*.
- Otsailaren 15etik apirilaren 15era: *35 urte editatzen: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*.
- Maiatzaren 9tik uztailaren 15era: *Gure azken aldiko historia: 1950-2016*.
- Uztailaren 18tik irailaren 30era: *Udarako nobelak*

Obrak zirela-eta, Irakurgelako jarduna bertan behera geratu zen.

2015eko Liburuaren Egunean, Cervantesen heriotzaren 400. urteurrena ospatzen zela-eta, Cervantes eta bere obrari buruz liburutegian dagoen dena jarri zen erakusgai.

03.10. Bibliografia buletinak eta IHS

- AURRE, astero, artikuluen aurreinprimaketen alertak.
- EKO AURKIB, hilero ekonomia aldizkariaren laburpenak jasotzen dira.
- Espezializatutako IHSak, aldizkari-zenbaki berriak jasotzen diren bakoitzean erabiltzaile-talde mugatu bati bidaltzen zaizkio, eskatu ahala:
- IHSak: Contable aldizkaria, Revista de Derecho de la Competencia y de la Distribución, Revista de Gestión Práctica de Riesgos Laborales, Revista de Sociedades Cooperativas eta Zerga arloko IHS.

03.11. Beste jarduera batzuk

WEB orria eguneratzen da:

- Euskaraz: <http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-767/eu/>
- Gaztelaniaz: <http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-767/es/>

Bisita gidatuak antolatzen dira, eskatuz gero, ostiralero. Jakinan argitaratzen dira.

Apirilean, Liburutegiak harpidetutako datu-baseei buruzko **informazio-liburuxka** bat editatu zen.

03.12. Langileen prestakuntza-jarduerak

Bi teknikari euskarazko prestakuntza egiten ari dira (Elebi), Dialneten testuak euskarara itzultzen ari dira.

Urriaren 17tik 19ra IVAPek antolatutako 12 orduko ikastaro batean egon ziren: *RDA: recursos, descripción y acceso. Introducción*. Liburutegiko teknikariak egon ziren ikastaroan: 7 pertsona.

04/ Bibliotekak sarea

2011n eta 2012an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko liburutegiek eta dokumentazio-zentroek katalogoak bateratzeko lana egin zuten; emaitza gisa, Bibliotekak katalogo kolektiboa sortu zuten. SIGB Absynet-en eskuratutako datuen bidez Sarean sei hilean behin egiten den jarraipenean, zenbait disfuntzio geratu ziren agerian. Hori dela eta, egoeraren azterketa-diagnostikoa egitearen premia ikusi zen, hain zuzen liburutegi bakoitzak ematen dituen zerbitzuen berezitasunak bildu eta aztertzeko, erabiltzaileen beharrianetara egokituko diren prozesuak eta informazio-zerbitzu berriak diseinatu ahal izateko. Azterketa hori 2015-2016an egin zen eta behin-behineko ondorioak 2016an aurkeztu ziren.

Sarearen Aholkularitza egin duen enpresarekin elkarlanean aritu gara, kontrasteko taldeetan parte hartuz eta eskatutako informazio guztia emanez.

Liburutegiak, eta bertako langileek, zerbitzuak eta prozesuak hobetzeko sortutako hainbat lantaldeetan parte hartzen dute; hona hemen lantalde horiek: Eskuraketa eta Zirkulazio Taldea, Autoritateen Taldea, Seriatuen Taldea, Katalogazio Taldea, Opac eta WEB Presentzia Taldea

Talde berriak sortu dira 2016an: SharePoint Taldea, Aliantza Taldea, Errepositorio Taldea, Legesarea Taldea, Artikuluen Banaketako Taldea.

Liburutegi Nagusiak koordinatu eta babestu egiten du Bibliotekak Sareko Autoritateen katalogoa arazteko proiektuan lanean ari den pertsona. 2016 osoan erroreak eta bikoiztuak desagerrarazteko eta nahikoak ez diren sarrerak osatzeko lana egin da. 34200 sarrera berrikusi dira. Ekainean autore pertsonalen sarrerekin amaitu da, eta autore korporatiboenak berrikusteari ekin zaio. 2017ko ekainerako amaituta egotea aurreikusi da.

EJIEko langileekin elkarlanean, AbsysNet aplikazioaren bertsio berrira migrazioa egitea prestatu da. 2017ko urte hasieran egingo da migrazioa.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroak Sarean sartzeari eskatu zuen. Eskaera onartu zen eta 2017ko lehen seihilekoan sartzeari espero da.

05/ Kanpo-lankidetzatza

1991z geroztik euskal liburutegi batzuk elkarlan-proiektu bat abian jartzea planteatzen hasi ziren, beraiek eskuratzen, zerbitzatzen eta biltegitratzen duten eguneroko prentsa kontserbatzeko. Beren instalazioetako biltegitan egunkariak paperean zaintzeko behar den espazio handiaren arazoa konpondu nahi da, eta aldi berean, babeskopia bat lortu, jatorrizkoak galduz gero informazioa ahalik eta modu fidelenean eskuratzeko modua bermatzeko. Gaur egun, proiektuak aurrera jarraitzen du, hamar Liburutegiren esku; horien artean, Liburutegi Nagusiak “El Mundo” egunkaria kontserbatzen eta azaleztatzen du.

Liburutegi Nagusiak BILGUNEA Katalogo Kolektiboan parte hartzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakundek –publikok zein pribatuk– osatzen duten katalogo hori Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak sustatzen du.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017